

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Artziniegako Udalaren titulartasuneko kale, landa bide, baso pista, lursail eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantza ofizioz berrikusteko prozedura hastea, erabateko deuseztasunagatik

2022ko uztailaren 14ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zitzaion Artziniegako Udalaren titulartasuneko kale, landa bide, baso pista, lursail eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzaren ofiziozko berrikuspenari (2021eko abenduaren 29ko ALHAOn argitaratu zen, 146. zenbakian), aurretiko kontsultaren izapidea ez betetzeagatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Artziniegako Udalaren titulartasuneko kale, landa bide, baso pista, lursail eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantza ofizioz berrikusteko espedientea jendaurrean jartzen da hoguei egun balioudenez, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesa duten guztiek azter dezaten Artziniegako Garai plazako 1. zenbakiko udal-bulegoetan, eta egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

Interesdunei jakinarazten zaie, jendaurreko informazioaren izapidearen ondoren, espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaliko dela, ebazpen proposamenarekin batera, ordenantzaren deuseztasun arrazoiari buruzko nahitaezko irizpena eman dezan, eta prozedura ebazteko epea etenda geratuko dela, irizpen eskaera batzorde horri igortzen zaion egunetik aurrera.

Artziniega, 2023ko maiatzaren 17a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES